

DIRU-ITURRIAK

Gure diru-iturri nagusia hasierako kapital izango da Bazkideek jarritako 100.000€ (Martin 25.000 €, Iñigo 25.000 €, Eduardo 25.000 €, Iñigo 25.000€), gastu askori aurre egin beharko diegulako (establezimenduaren alokairua, produktuen produkzioa, webgunea, teknologiaren inbertsioa, etab...). Produktuaren salmenta eta publizitatea gure webgunean izango dira hasierako inbertsioaren errenta lortzeko bide nagusia. Era berean, inbertsore potentzialak, diru-laguntza publikoak (Gasteizeko Udala, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza, Espainiako Gobernu) eta GKE-ak (Euskal Gorra, La ONCE, Aspator, etab.) izango dira beste diru iturri bat. Azkenik, epe luzeko maileguak izango ditugu Laboral Kutxatik. Estimatu dugu guzti honen artean 1.500.000€ jasoko ditugula.



Kontuan izanik, gure produktuari esker bezeroi bizitza errazten diegunez, gure produktuagaitik eskatzen dugun dirua ordaintzeko prest daudela esango genuke. Sars-Cov-2 dela eta, maskara erabiltzea derrigorrezkoa da eta ezinezko bihurtzen da gorrentzat ezpainak irakurtzea eta zeinu hizkuntza ez dakien norbaitekin elkarrizketa bat izatea. Era berean, istripu batengatik gor geratu diren eta ezpainak irakurtzen edo zeinu hizkuntza ez dakiten pertsonen bizitza errazten die. Hori dela eta, gure produktua erosteko behar den dirua ordaintzeko prest egongo dira. Salmenta honen bitartez ez du bakarrik enpresak onura ekonomikoa sortuko, baizik eta, beseroek ere onura lortuko dute produktuaren erabilgarritasuna dela eta.

Gure aurreikuspenen arabera, lehen urtean saldutako betaurreko bakoitzeko 400-600€-ko etekina izango dugula kalkulatu dugu. Urtean 1.500 unitate saltzea espero dugu, hau da, 600.000-900.000€ lehenengo urtean, edo hileroko 50.000-75.000€. Gero, negozioa finkatuta eta prestigioa lortzen joan ahala, salmentak handituko dira, merkatua zabaltzen eta diru kopuru handiagoa lortuko dugu. Horri esker, diru gehiago izano dugu enpresan inbertsitzeko produktubitatea handitzeko asmoz (enpresaren estruktura hobeto finkatzen, estrategiak hobetzen, marketinean diru gehiago inbertitzen, giza baliabidean diru gehiago inbertitzen,

ahala nola, langileak hezitzen). Horren ondorioz, enpresaren unitate guztiak hobeto koordinatuko dira errendimendua handituz, orduan gure etekinak handituko lirakete eta enpresaren tamaina handitzeo aukera izango genuke.

